

Lau belaunaldi euskal itzulpengintzaren inguruan

KARLOS DEL OLMO (*gidoia eta erredakzioa*)

NAHIA ZUBELDIA (*transkripzioa*)

*Itzulpengintza oso lanbide zaharra omen da, nahiz eta haren gaineko teorizazio sendoa XX. mendearen era sistematikoan lantzen hasi zen. Orokorrean, beraz, ofizioaren gaineko teorizazioa “labetik harako ogia” da, eta, zertan esanik ez, euskal itzulpengintzaren gaineko gogamenaren baranoan, lehen pausuak baino ez ditugu eman. XXI. mendea urteak betetzen hasita dagoela, nekez topa liteke mahai ingurura gaur egun euskal itzulpengintzan diharduten hainbat adinetako itzultzaileak elkartzeko garai egokiagorik, nork bere ikuspegia azaldu, lanbidean ibilitako kamioaz berba egin, itzulpengintzaren zokondoez eta, oro har, ofizioaren penez eta pozez aritzeko-rik. Hala, **Lurdes Auzmendi, Aintzane Atela, Erika Gonzalez eta Piarres Xarriton** bi mila eta seiko maiatzeko arratsalde batean, elkarrekin bazkaldutakoan, EIZI Eren egoitzan elkartu dira Senez aldizkariaren zuzendariarekin zenbait sujeten gainean solas patxadazkoa egitera.*

Senez: Zergatik eta nola itzultzen hastea?

Piarres: Ni apeza bainintzen, eta, lehenago, apezgaia, ene irakasleekin ikasi nuen itzulpenek bazutela inportantzia. Piarres Lafitte izan nuen horretan ere lehen irakaslea eta harekin ikasi nuen itzultzen, frantsetik latinera eta latinetik frantsesera. Bertsoak egiten ere harekin ikasi nuen, euskarazko bertsoak ez dut haatik behin ere egin, latinezkoak baizik ez ditut nehoiz ondu. Euskara ikasteko eta aberasteko bi

tresna nagusi bagenituen, elkarriketa eta irakurketa: Iratzederrek, adibidez; lagun ginelarik, euskaraz ez baitzekien, ama hizkuntza galdua baitzuen, baina ikasi nahi, elkarriketa luzeak egiten zituen euskaradun lagunekin. Nihaurek ere, bestalde, irakurgai liburu bat eman nion, aita Laphitzek egina *Bi saindu euskaldunen bizia* izenekoa eta beste liburu asko bezala Iratzederren izen bera zeukan, hots, Jean Diharce ene osaba xahar apez zenaren liburutegi aberatsetik heldu zitzaidana. Erran dezaket liburu hura

ene lagunak irakurriaren irakurriaz, gogoz ikasi zuela eta horrela, geroago bakoitza gure alde hasi ginelarik euskaraz idazten, bilakatu ginela bera aita Xabier beneditarra eta nihaur Xabier Gazteiz historialari nahia. Konturatu zarete Koldo Mitxelenak ere, funtsean, liburu hori bera zuela hautatu, *Klasikoak* bildumaren irekitzeko bere euskal ikasleen xedetara.

Dena dela, aitortu behar dut nihaurek menturaz gehiago erabili dudala beste liburu bat, Etxepareren *Buruchkak*, Lafittek erraten baitzigun Etxepare medikua zela denen maisua. Kepa Altonagari aterako baitu laster *Aldudeko medikua* izenarekin idazle horren historia, zatika irakurri dudana jadanik, hor ageriko da agian, nor zen zuzen Etxepare handia eta zer ziren Lafittekin izan zituen harremanak.

Nik ezen, Etxepare bera ez dut behin ere ezagutu ez ikusi, baina haren obra osoa bildu dut eta publikatu. Nahiz berrikitan oraino jakin dut, Kepa Altonagari esker, bazirela gutun batzuk, behin ere Villasantek eta haren lagunak agertu ez zituztenak; Euskaltzaindian zeudelarik hastapenetik. Hain zuzen, hor ikasi dut, 1914ko gerla bururatu eta Pierre Broussain euskaltzain adiskide mina ustekabean zendu zelarik, Georges Lacombe euskaltzain izendatu aitzin, Azkuek Jean Etxepareri proposatu zionla Madrilerako joatea sei hilabeteentzat, Menendez Pidalekin fonetikaren ikastera, gero handik Bilbora itzultzean, hor berean alde batetik bere medikuntzari jarraitzeko eta bestetik, denbora erdir, Azkuerekin batean, euskaltzain oso bezala, Euskaltzaindiaren gramatika bateratua, fonetikatik hasiz, egiteko. Aldudeko medikuak, ordea, herri horretan jadanik egin “lothurak” aipatu zi-

tuen ezetz ihardesteko euskaltzainburuaren eskaintzari.

Gauza harrigarria, gure Euskaltzaindiaren gramatika osatzera doan urte honetan hona non eskuetarazten zaidan, 1920eko martxoaren *Eskualduna* astekarian, aita Petiri Lhande-Heguy euskaltzainak argitaratu zuen artikulua bat, eskatzeko alde batetik, Collège de France aipatuan sar zedin Jean Pierre Rousselot (1846-1924) *Phonétique Expérimentale* deitu jakintza berriaren eta dialektologiaren bidegile nagusietarik zeukaten frantses apez jakintsua eta bestetik, Euskaltzaindia sortu berriak lehen bai lehen antola zezan fonologia laborategi bat.

Konturatzen gara gaur egun, urte haie-tan Frantziako errepublika laikoak aita Lhande jesuitari berari unibertsitate publikoko ateak Tolosan ireki zizkion bezala, ireki zizkiola ere Parisen aita Rousselot apezari, baina ohartu behar dugu ere handik laster, aita Lhande horrek ber berak Espainiako erreinu katolikoan sartzeko paperak oro galdu zituela eta betikoz; horra zergatik Errege Euskaltzaindiaren egoitzatik at egin zituen bere ikerlanak, euskal fonetikan Jean Larrasquet (1885-1953) zuberotar apezarekin eta hiztegi-gintzan P. Lafitte (1901-1985) eta Ph. Aranart (1901-1981) Uztartzeko bi irakasleekin.

Ez nagoke ordea, ene zorraz kitatzekotan, Piarres Lafittek erakatsi zidan beste liburu bat aipatu gabe, hura baita *Jesukristoren Imitazionea* hazpandar idazle batek Leon Leon apezak (1896-1962) euskaraz itzulia. Itzultzailearen adiskide izan zen Piarres Lafittek zioen, liburu hori, 1929an argitaratu aitzin, Jean Etxeparek bere eskuz oso-osorik berrikusi zuela. Itzulpena ez zen beraz, apez baten lana bakarrik, baina laiko

batena ere. Baina gauza horrek egiaztatzea merezi luke, Leon Leonen eta J. Etxepareren euskarak parekatuz.

Dena dela, jakin behar da ere, P. Lafitteren arabera, J. Etxepare Larresorotik atera zelarik Arnaud Abbadierekin filosofia ikasirik, baina bere hurreko eta etxeko federtan durduzaturik, aita Larralde fisika irakasle eta konfessore maiteak eman ziola. Larresoroko ikasle ohiak ordea bere bizi guzian eta hil arteraino, barneko sakelatan atxiki omen zuen aita Larralde eman irakurgaiak *Jesukristoren Imitazionea*.

Ez da, beraz, harritzeko gure Lafitteren-gandik horiek oro ikasiak genituen haren ikasle ohi anitzek eta bereziki urteen buruan Pierre Narbaitz "Arradoy" (1910-1984) deitu beste euskal irakasle baten eskutik Vatikanoko II. Kontzilioaren aginduz Erromako Elizaren liturgia euskaraz itzuli behar izan genuen nafar-lapurtar gehienek, eta, nihaurek bezala, Ganix Diharce, J. P. Andiazabal, Benoat Olhagaray, Bernat Goity, Emile Larre, Josep Camino, Hiriart-Urruty Jean eta André anaiek eta beste zenbaitek Leon Leonen liburua izan baldin badugu anitz urtez gure eskuliburu.

Egia da, halere, zenbait urte lehentxeago, beste eliza liburu zenbaiten ezagutza egina genuela, hala nola, Clément Mathieu Akizeko apezpikuak hainbeste gorensten zuen latinezko Tomas Akinokoaren himnolak Orixek euskal bertsoetan ondurik zeuzkan meza liburua. Hau ordea gipuzkeraz emana zen eta ez zen oraino euskara batuaren hotsik ozen ez elizetan ez eskoletan. Bakoitza bere euskalki literarioari zoakion! Baina hortik lekora Manuel Lekuonaren (1894-1987) itzalean piztu zelarik eta gero samindu haren belaunaldiko Euskarazaintzakoan

eta Luis Villasanteren (1920-2000) belaunaldiko Euskaltzaindikoan arteko bataila itsusia, baizik eta "H" letra bazela edo ez zela, hasian hasi, itsuski hedatu zen gure euskal herrietako erakunde zibil eta politikoak inarrosterraino, halako gisaz non gutarteko gerla horren historiak berak liburu lodi bat hartze bailuke, bizi diren gerlari ohien lekukotasunak biltzen ahal direino.

Dena den, liturgiako itzulpen gatazkatsu eta, nik dakidala, oraino funtsez bururatu gabeko historia horiez besterik ere izan da eta, bakoitzak bere itzulpenez hitz egin behar duenaz geroz, gogoratzen zait II. mundu gerla bururatzean eta Erromako bi urteak egin ondoan Hazparneko ikastegira izendatu nindutelarik, nihaurek, Piarres Lafittek eskaturik, *Herria* astekariarentzat nazioarteko politika sail bat ireki nuela, *Federalista* izenordearekin, *Le Monde* egunkari berriko artikulu bat edo beste euskaraz eskainiz.

Orduko egunkarietan agertu ziren ize-nak, ez izanik ere Hubert Beuve-Méry *Le Monde* horren sortzailea edo Georges Bidaud *L'Aube* deituaren zuzendaria bezain ezagunak, ezagutzen genituen halere askitxo Iparraldeko eta Hegoaldeko euskaldun askok, zeren nazien eskualderat erori ez ziren Frantziako, Belgikako, Italiako, Katalunian edo Suitzako idazle, filosofo, teologo asko, 1936ko Espainiako "Gurutzada" aipatu hartan euskaldun katolikoen alde agertu bertsuak eta orduan gogor gaztigatu izanak zirelako: izen zenbait baizik ez aipatzeko, hor genituen Jacques Maritain, François Mauriac, Georges Bernanos, Emmanuel Mounier, Joseph Folliet, Charles Journet, Luigi Sturzo eta Fourvières-ko de Lubac, de Montcheuil jesuitak edo Le Saulchoir-eko

Chenu, Congar, Bernadot, domingotarrak; hauetarik batek, aita M. D. Chenu zenak, 1895ean jaioa bera, oroitzapenak gogoratzean, kazetari bati salatzen zion, 1937. urtea izan zela haren belaunaldikoentzat urte nagusia; urte hartako gertakari larriak labor bilduta zioen, hitzez hitz: “*C’était l’année de Guernica. . . c’est de là que tout est parti!*”, “Gernikaren urtea izan zen eta, denak hortik abiatu ziren!”.

Aitor dezaket, orain, nihaurek 16 urte baizik ez nituen urte haietan, Lafittek gomendaturik, hartu nuela harpidetza domingotarrek sortua zuten *Sept* deitu astekaria oporretan sortetxean hartzeko gisan, eta ez zitzaidala egundaino dolutu, nahiz urte hartan berean Vatikanoko isilarazi zuen astekari hura.

Hamar urte geroago ordea, teologia ikasketak egitean Erroman aurkitzen genituen Pio XII.aren aitzinean Frantziaren ordezkari egona Pétainen ordezkari Léon Bérard biarnesa, Vatikanoko santa Martan aterpetua eta, de Gaullen ordezkari berriz Jacques Maritain, “Gurutzen” etsaia eta honen aholkularia, Montréaletik ekarria, aita J. T. Delos domingotarra izanagatik, aita Garrigou-Lagrangek eta Erromako Inkisizioaren barneko anaia anitzek biak hain gaizki erabiliak. Egia erran, urte haietan Erromako ospetsu anitzek gaizki ikusten zizuten pentsalari asko baziren oraino isilik egon behar zutenak, edozein ordenatakoak izan, ala Teilhard de Chardin (SJ), ala de Lubac (SJ), ala Congar (OP), ala Chenu (OP). Ez nuke ahantzi nahi, euskal itzultzaileez mintzo garenez geroz, urte haietan anitz euskal bazelarik oraino Erromako kongregazioen etxe nagusietan zebiltzala besteak beste, aita Zarranz Iraizotzekoa

(1897-1980) kaputxino euskaltzain nafarra, aita Bedita Larrakoetxea Zeanuriko karmeldarra (1894-1990) Ingalaterrako atepean hizkuntza ongi ikasirik Shakespeareren obra guziak euskaraz itzuli zituen eta ere Romualdo Galdos (1885-1953) Jesusen lagundiko eibartarra gure greka irakaslea eta urte ilun haietan *Daviden abestiak* edo salmoak euskaraz itzultzeaz harro agertzen zitzaiguna.

Denboraren buruan, Klasikoak izeneko itzulpen sailean, frantsesezko ene jakitate apurra utzi baldin badiot ere behin Henri Bergsonen liburua itzultzeko euskararekin errebela zitekeen bati, errana baita ezen *Quandoque dormitat Homerus!*, Tomas Morus-en *Utopiarekin* eta Vitoriaren *De Indisekin* zergatik ez nezake aitor, nihaurek ere atsegin izan nuela eta historia aldetik ere asko ikasi. Hirugarren aldian, ordea, ene lankide eta aspaldiko lagun Jose Luis Santa Cristinarekin, Spinozaren *Etika* liburua biok elkarrekin egina genuelarik eta hitzartu bezala itzulia, gure ustez baimen guztiekin, hona non gure bien lana, ene protesta guztiengatik, argitaratzen diguten faltsuki ene izen soilarekin.

Horretan uztera nindoan ene lankidetza, noiz eta ere liburu sortaren arduradun berria Pello Salaburu euskaltzaina agertzearekin hitzartzen dugun Azpilkuetako Martin-txo (1492-1586), doktore nafar handiaren *Teologia eta Politika Antologia* baten aurkezpena eta itzulpena egitea. Hori da beraz amarez egin dudana azken lana, gogoratu bereziki haren askazi Frantzisko Xabierko Jaso eta Azpilkuetaren V. mendeurrenean geundela 1906. urte honetan.

Ez dut, bada, hor beste auzi bat hunki, XVI. mendez geroz, Frantziako eta Espai-

niako estatu eta elizen artean bost mende honetan dirauena eta Baionako diozesiak gaur arte pairatu behar izan duena, hots, doktore nafarrak bere zaharrean, batzuek “errege zuhurra” deitu zuten, baina guretzat, “salbu zuek eta” “errege zakurra” deitu genezakeen Felipe II.aren jukutriei buruztiarik ezin eginez, Gaztelan behin eta Erroman jarraian batailatzen zen urte haietan, Nafarroako Joana Albrete erreginaren aginduz Joanes Leizarraga Berakoizkoak 1571n Arroxelan inprimatzera zihoan Testamentu Berriaren itzulpenaren estakuruaz baliatu zen Felipe II.a, bere esku ez zuen Baionako diozesiari Hondarribitik hara, Bidasoa errekan, Malerrekan eta Baztan aldean Belate-raino zeuden 44 parrokien edekitzeko eta omen protestantismoaren izurritetik begiratzeko. Baina orduan hiru aita saindu bederen enganatu zituen eta geroztik egundaino zuritu ez den auzi itsusi horrek merezi luke gaur egun gogoratzea, salatzekeo bederen, Euskal Herrietan gutik dakiten azken datu hau: Erromako aita saindu Pio XII.ak, Franco Espainiako diktadorearekin hitzartu konkordatuak XVI. mendeko lapurretaren hondakinak utzi zizkiola Arnegi eta Luzaideko mugetan, Leon Albert Terrier Baionako apezpikuari (1944-1957) hitzik erran gabe.

Lurdes: Errebindikazio bat.

Piarres: Bai, errebindikazio bat; zeren zuzenlegeak agintzen baitio bakoitzari bere zor historikoak ordaintzea, zorduna bera izanagatik lehenburu ala errege.

Gero, beste itzulpen berezirik egin du-danetz, galdatzen badidazue, bai, gogoratzen zait, zuk, EIZI Eren arduradunak eskaturik eta argitaraturik, zuhaurek, Lurdes, Itzulpen Antologia II antolatu zenuelarik,

Pierre Eyt Bordeleko kardinal zenak *Etudes* Pariseko jesuiten aldizkari ezagunean 1978an idatzia zuen *Pour une politique des différences culturelles autour des Pyrénées* artikulua eta hura zidan berak gomendatu euskaraz itzultzeko, aspaldiko lagunak baikinen ordukotz elkarrekin, ezen ene doktore tesia aurkeztu nuelarik Tolosan 1973an, Baionan batere alde ez nuen J. P. Vincent (1911-1994) ene apezpikuaren aurka gogor egina zuen eta honek gaitzesten zuen ene teologia politikoa beste mahaiko epaile guzietan zuzenetsia.

Ondotik, egia erran, Pariseko argitaletxeetan ez zuen ene lanak arrakastarik izan, baina Montréal ene airekotik jautsi bezain laster *Fides* deitu Québec-eko editore puxantenak *Héritage et Projet* deitu bere sarean sartzen zidan *Le droit des peuples à leur identité* titulupean.

Geroztik urak egin du bide eta, duela bost urte zendu zitzaigun Pierre Eyt kardinala, euskaldunak eta gaurko erromesak, paperik gabeak bereziki, hain maite zituen apez argi eta bihotz handikoa, orain Laruns bere sorterrian, Pirinio mendien altzoan loak harturik. Eta hona non duela zenbait aste jakiten dudan Bordeletik, Frantziako Elizaren argitaletxeek ez dutela gogorik Pierre Eyt kardinalaren idazlanen argitaratzeko. Alta, prestaketa lanak hiru irakasle adituk bururatuak omen dituzte eta badakit Roger Etchegaray adiskideak bizpahiru urte honetan aitzin-solasa igorria diela. Orain, beraz, jakin behar duguna hau da: zer duten batzuek idazlan horietarik ez ikusi nahia eta gero Frantziatik kanpo ez ote den mundu zabalean nonbait aterabiderik, nahiz ene susmoa daukadan “nazional-katolizismoak”

badituela bazter asko kutsaturik eta ez baka-
rrik mundu hispanikoan.

Bestalde, ororen buru, ni, itzultzaile be-
zala, ene mendean, ez naiz on izan hitz ba-
ten itzultzeko ez ingelesetik, ez alemanetik.
Eta filosofo naizela ausartu naiz erratera? Ez
da posible, filosofo izateko gaur egun, jakin
behar dira dudarik gabe ingelesa eta alema-
na bederen. Eta ez dut ikasi, Montrealen
ikasten ahal nuen ingelesa, emaztearekin
abiatu ginen, baina hiru-lau ordu egin eta,
ene laguna hasi zen gauaz lanean; ez nintzen
bakarrik ibiliko. Ene alferkeriak irabazi
zuen bataila eta ez dut geroztik ikasi ingeles
tutik.

Lurdes: Nik ere filosofia ikasi nuen, bai-
na ez naiz dedikatzen filosofiara.

Piarres: Beraz, ezagutu zenuen ere Sava-
ter adiskidea.

Lurdes: Martuteneko Itzultzaile Eskola
zabaldu zuenean Euskaltzaindiak, ni ordura
arte Zeruko Argian lanean ibilia nintzen,
eta Zeruko Argiatik Argiarako pausoa eman
zenez, bertan ginen batzuk atera egin gi-
nen Zeruko Argiatik, eta hasi ginen, hain
zuzen, Martuteneko Itzultzaile Eskolan
ikasten. Nik beti aitortu dut eta beti aitortu-
tuko dut, gainera, Martuteneko Eskolako
umea naizela; bertako irakasle izan genitue-
nak, Xabier Mendiguren, Josu Zabaleta,
Koro Navarro, Aintzane Ibarzabal... , horie-
kin ikasi nuen, eta, ezin ahaztu, Pello Zaba-
leta. Gure inguruan azken urte hauetan bizi
ez den arren, bertako irakasle izan zelako.
Han ikasi nuen, baina bertako ikasketak
bukatzearekin batera matrikulatu nintzen
filosofian, lana, hain zuzen, fakultatean egi-
ten nuelako eta bertatik bertara oso erraza
zitzaidalako. Filosofiako ikasketak bukatu,
baina itzulpena ikasia nintzen, eta oso era-

kargarria egiten zitzaidan euskararen mun-
du hori, baina betiere erreferentzian beste
hizkuntzekin. Ez zen euskara berez, nahiz
eta, orain, Xarritoni entzutean gogoratzen
nintzen Vinçon-en bibliografia begiratzen
genuenean guztiz liluratuta egoten ginela.
Orduan, filosofiako ikasketak bukatu, eta
irratian ibili nintzen lanean. Irratiarekin as-
pertuta, beti hor sartua neukan harra.

Bi gauza egon ziren batera: nire itzulpe-
nera dedikatzeko gogoia alde batetik, eta
zenbait itzultzailek itzultzaileen elkarte
sortzeko gogoia. Orduan, ia batera eman ni-
tuen bi pausoak: itzulpen lanak egiten hasi,
eta, aldi berean, itzultzaileen elkarte sor-
tzeko lanei ekin. Horiek izan ziren nire ha-
sierak.

Aintzane: Ni ere Martuteneko eskolan
ibilia naiz. Hala hasi nintzen. Josu Zabaleta
eta Xabier Mendiguren zeuden orduan. Li-
teratura Unibertsala lehiaketarako deialdia
izan zen udaberri aldera, kurtsoa bukatu
baino lehen, eta animatu ginen Miren Arra-
tibet eta biok, hasteko. Atera genuen Una-
munoren *Abel Sanchez*, eta horrekin hasi gi-
nen. Hori izan zen gure lehenengo
itzulpena. Gero, Josuk deitu zigun hiztegi-
gintzan jarduteko eta Lur Entziklopedian
aritu ginen, urtetan. Ez zen zehazki itzulpe-
na, baina hori izan zen gure hasiera.

Hala ere, itzulpena, guk, betidanik egin
dugu, ikastolan. Ikastolako liburu guztiak
gazteleraz ziren, eta nahi eta nahi ez, kontu-
ratu ere egin gabe, itzulpena egiten genuen,
denbora guztian, etengabe.

Erika: Niri ere gauza bera gertatu zitzaie-
dan. Ikastolan, gogoan daukat UBIIn histori-
riako liburua, irakasleak esaten zigun hura
ona zela, baina erdaraz zegoen. Orduan,
gure historiako klase guztiak pasatzen geni-

tuen erdaratik euskarara itzultzen. Ez dakit hortik sortu zitzaidan pasioa edo itzulpengintzarako gustua, baina UBI amaitu ostean garbi neukan itzulpengintza ikasi nahi nuela. Ordurako, jada, Estatuan hainbat eta hainbat unibertitate zeuden; Euskal Herrian ez, baina nik Valladolideko Unibertitatean, Sorian, ikasi nuen. Ikasketak bukatu, eta, zorionez, Lurdes Auzmendi eta Josu Zabaleta ezagutu nituen, eta haien eskutik hasi nintzen pixkana mundu honetan sartzen. Hasieran, beste lan batzuekin konbinatzen nuen itzulpengintza, eta pixkanaka, horrela hasi ginen.

Senez: *Batzuek horren gainean zer edo zer esan duzuen arren, lehen-lehenengo itzulpena gogoan duzue zein izan zen? Idatzizko itzulpen gogoangarririk?*

Piarres: Bai, enetzat eskolako lana izan zen. Zeren, haurrean, egia erran, diziplinari gabekoa nintzen, omen, nehon ezin egona. Ikastetxe osoan hogeita zazpi ikasle ginen, eta zazpi irakasle bagenituen gure bizkar jasateko. Bestalde, etxetik bostehun metrora bizi izanagatik, hutsa baitzen Hazparneko barnetegia, bete behar baitziren oheak, barnetegian ezarri gintuzten ikasle guztiak, gure penitentziarako. Beti ikasle berak ginen zigortuak eta beraz, enetzat hasteko, urte gogorak izan ziren. Hala nola, latinezko testu bat ematen ziguten gogoz ikasteko, latinez tutik jakin gabe ere. Eta gero hasten ginen latinezko lerro batzuen itzultzen. Uste dut hori izan dela egin dudana lehen itzulpen lana latinetik frantsesera. Gero gaztelaniatik itzuli nituen lehen lerroak eta ongi ahoskatu behar genituenak

oraino gogoan dauzkat : “*Cuando las estrellas brillan en el cielo!*”.

Grekotik frantsesera ondoko urtean hasi ginen. Eta orduan nuen ere ikasi euskara arraro bat itzultzen frantsesera, Alfredo Otegi izeneko Auritzeko ikasle lagun batek bere Nafarroatik ekarri baitzidan, 1933an, *Sabin Euskalduna* liburua ene liburutegian atxiki dudana. Hor nuen, alabaina, ikasi ha maika urte nituelarik Euskal Herria deitu behar zela Hazparnen ere *Euzkadi*, erregea *bakalduna* erresuma *bakalderria*, historia, *edestia*, literatura *elertia*, geografia *lutelestia* eta abar.

Lurdes: Nik gogoan dut liburu bat, hain zuzen, Martuteneko itzultzaile eskolako bi ikasleri enkargua pasatu zigun irakasle batak. Gipuzkoako ondare historiko-artistikolari buruzko liburu bat zen. Esan behar dut lan egiteko moduari dagokionez, zorte izugarria izan nuela, inguruan beti izan nituelako irakasleak edo itzultzaile trebatuak prest egiten nituen lanak zuzentzeko, eta zuzenketen berri ematen zidaten, hobetzen joateko.

Aintzane: *Abel Sanchez* izan zen argitaratutako lehenengo itzulpena. Itzulpenak lehen ere eginak nituen, baina aipagarriena hori izan zen.

Erika: Ni, praktketan, Rosettan hasi nintzen, Josu Zabaletarekin eta Koro Navarrokekin, Aintzane ere hor ezagutu nuen. Uste dut Lur Entziklopediaren bigarren ediziorako gehigarri berezi bat zela. Niri tokatu zitzaidan ingelesetik euskarara lurralde guztiak itzultzea.

Senez: *Bide beretik, aipatuko zenituzkete langintza honek eragindako une goxoren*

bat eta, jakina. garratzen bat, halakorik izan bada?

Piarres: Irakurketetan gertatzen dena itzulpengintzan ere gerta daiteke, itzultzen duzun testua, adibidez, *Utopiaren* kasua, ez nuen sekulan asmatuko hor aurkituko nuela datu polit bat, ohartzearekin noiz egina den *Utopia*, 1512-1514an, zuzen banabil, ber urte horietan jabetu baitzen Fernando Katolikoa Nafarroako erreinuaz eta Enrike VIII.aren baitan ibiltzen ohitua baitzen Tomas Morus, salatu zigun nola aipu zen maltzurki haren inguramenean, Ingalaterrako erregeak nahi bazuen bakea egin Frantziakoarekin kontseilatzen ahal zion auzo horri Nafarroaren uztea Aragoikoaren eskutan, beti errazago baita oparia egitea norbaiti, zurea ez den edozein gauza ematearekin.

Lurdes: Une gozoak, itzulpenean: oso berriki, sari bat eman zidaten. Lehenengo saria, jaso dudan sari bakarra, eta betiko guztiz hunkitua utzi nauena. Gipuzkoako Aldundiaren eskutik Haur eta Gazte Literaturan ematen den saria. Irakurleek, haur eta gatzetxoek beraiek ematen dutelako, beraiek erabakitzen dute. *Iqbalen historia* nobelaren itzulpenagatik eman zidaten. Benetan, oso hunkigarria.

Interpretazioan, asko. Egiten dugun itzulpenaren emaitzak berehalakoak izaten direlako. Ikusten duzu itzulpenak ondo funtzionatu duela, ondorengo galdera-erantzunen txanda ongi joaten delako. Oso oroimen txarra, daukadan txarrena, hain zuzen, interpretazioan izan nuen. Azkeneko Mundu Biltzarrean, filosofiari eskaini zitzaion biltzarrean barruan, filosofiako lizentziatu berri batek mintzaldi bat eman zuten, 30-40 bat minutukoa, Kanti buruz,

irakurria, goitik behera. Testu hura prestatzen pasatuak izango zituen hilabeteak eta hilabeteak, nik ez nuen testurik. Aipuz jositako zegoen, aipu asko, gainera, alemanez botatzen zituen, ehun eta gehiago pertsona egongo ziren pertsona horrek esandakoa jakin nahian, eta hura ezinezkoa izan zen. Gogoan dut, benetan, negarrez atera nintzela aretotik, ezintasunak jota.

Itzulpenean ez, oroimen txarrik ez, beti izan dudalako itzulpenean inguruan jendea prest laguntzeko, esku bat botatzeko, eta nahiz eta lehenengo momentuan izaten duzun halako bihotzondoko bat, berehala pasatzen diren gauzak izaten dira.

Aintzane: Une gozoak, asko. Bestelakoak ere bai, baina ez dut gogoratzen itzulpen bat bereziki gustatu zaidana, edo atseginez bukatu dudana. Gehiago izan da jende artean itzulpenari esker lortu dudana harremana; hasieratik taldean lan egin dut, edo Mirenekin, eta era horretara iruditzen zait askoz ere gehiago ikasten duzula. Egia esan, itzulpenari esker, uste dut, asko ikasi dudala, orokorrean, munduaz eta gai guztiei buruz; baina garrantzitsuagoa izan da jendearekin izan dudana harremana, jende asko ezagutu dut eta oso harreman bereziak sortu dira itzulpenari esker.

Garratza? Egunero sortzen da gorabeheraren bat, bati ez zaiola gustatzen, bestea ez duzula behar adina ondo egin. . . Baina horriek, egia esan, ahaztu egiten dira berehala.

Erika: Niretzat ere unerik goxoenak, jendea ezagutzea, jende oso handia. Horiek izan dira niretzat ogibidearen momentu goxoak. Lurdes, niretzat beti izan da ogibideko ama, eta unibertsitatean ere, lankide izateaz gain, ama moduan ere badaukat; berri esker jende asko ezagutu dut. Itzulpen-

gintzak, eta interpretazioak, batik bat, ate asko ireki dizkit. Egiten dudanarekin lortu dut pozik egotea, eta nik uste dut hori izan dela gauzarik politena.

Garratza? Burura etorri zait behin, interpretatzen ari nintzela Nigeriako neskato bantentzat, prostituta zen, eta bere historia itzultzen ari nintzen neurrian uste dut mal-kotan amaitu nuela. Lehenengo aldia zen horrelako egoera batean interpretatzen nuen, oso gertaera gogorrak azaldu zituen, eta eskarmentu eza, eta lana eta egoera pertsonala banatzen ez jakite hori dela-eta, pasatu nituen bi egun buruari bueltak ematen, neskato horrek non amaituko zuen, zer egingo zuen nire buruari galdezka. Momentu garratz bat bezala gogoratzen dut.

Lurdes: Bestalde, nik esango nuke aldaketa gertatzen ari dela, eta, funtsean, gainera, euskal itzulpengintzak gorakada nabarmenena izan zuen garaian, talde lana uste dut oso garrantzizkoa izan zela. Elkarri beti laguntzeko prest egotea, talde handiago edo txikiagoetan, kontzientzia oso sakona geneukan protagonismo berezi bat geneukala euskararen beraren erabileran eta normalizazioan —administrazioan sartzen ari zen, irakaskuntzan, eta abar—. Esango nuke hori bukatzen ari dela, eta berriro banakako lanerako joera dagoela. Ez dakit joera den, edo, ezinbestean, itzultzaileak horrela lan egitera behartuak dauden. Agian badu zer ikusia, baita ere, itzultzaile andana handi samarra merkaturatzen aritzeak. Beharbada jende guzti hori nola bideratu guk eraman genuen dinamika horretatik. Uste dut guri gertatzen zaigula, gure aurrekoei gertatu ez zitzaizen bezala, uste dut hori aitortu behar dela, gure aurrekoek izugarritzko lana egiten zuten guri laguntzen. Ez dakit zenbateraino

gauden gu prest orain datozenei neurri berean esku bat botatzeko. Eta nik fakultatean, esate baterako, ikasleei beti esaten diet: hasten zaretenean, egiten duzuen edozein itzulpen ontzat eman baino lehen, pasatu beste norbaiti. Agian ez da itzultzailea, baina izan dadila, gutxienez, euskara ongi dakien norbait. Irakurri dezan, eta esan dezan ulertzen da testua, ez da ulertzen, txukun dago. Ni, neure aldetik, saiatu izan naiz esku bat botatzen ahal izan dudanean neurrian, baina, baita ere aitortu behar dut, noizbait esaten dudala “jada ezin da”.

Horrenbeste itzultzaile lan merkatura ateratzearekin batera, beste era bateko arazoak ere sortzen hasi dira; besteak beste, zenbat ordaintzen den gaur egun itzulpena, itzulpen-memoriak aitzakiatzat hartuta, itzulpen automatikorako tresnak bailiran erabiltzen dira eta itzulpen-lana merkatzeko aitzakia paregabea bilatu dute batzuk. Ez da guri dagokigun arazoa bakarrik; dakidanagatik, Espainiako beste hainbat tokitako itzultzaileekin hitz eginda, edo Frantziaren bertan, Parisen, nazioarteko erakundeentzat lan egiten dutenek-eta aipatzen duten arazoa da. Eta, dudarik gabe, kalitateari garai batean ematen zitzaion garrantzi hori gaur egun esango nuke laxotasun dezente handiagoarekin ulertzen dela.

Aintzane: Taldearena ez dakit. Agian lan merkatuarena da, orokorrean hartuta; eta gure bizimoduan, gero eta gehiago lan egiten dugu, bizi gara eta mugitzen gara, bakarrik. Itzulpengintza hori ikusten den beste alor bat da. . Eta gure arteko harremanetan, adibidez, lehen, itzultzaileok elkar ezagutzen genuen, iruditzen zait, elkartean bertan ere. Bagenekien Lurdesek zer aurpegi zuen. Gaur egun ez dugu elkar ezagutzen, Inter-

net bidez hitz egiten dugu; eta horregatik, agian, lankidetzarena galdu egin da. Ni ohi-tu naiz taldean, eta egon behar izan dut etxean, garai batean, bakarrik lanean, —Mirennek eta biok beti elkarren lanak begiratuta, oso inportantea iruditzen zaidalako—, baina utzi nion etxean egoteari, iruditzen zaidalako galdu egiten duzula, bate-tik pertsonalki, ordu asko ematen dituzulako bakarrik eta jendearekin egoteko aukera galtzen duzulako, eta itzultzaile lanarentzat ere iruditzen zait txarra dela. Ikasten dituzu formula batzuk, formula horietan gelditzen zara, iruditzen zait ez duzula aurrera egiten. Eta jendea, beste itzultzaileak, eta, baldin badauzkazu irakasleak edo zu baino trebatuagoak, hobe, ikasteko. Zorionez, aldaketa batzuk izan dira baliabideetan, ondo etorri zaizkigunak: Internet eta horrelakoak. Nik uste dut itzulpengintzan gertatzen ari dena gizartearen adibide dela.

Lan baldintzak ere aldatu egin dira, gaur dugu Segurtasunaren Eguna, eta zenbat jende hiltzen den fatxadak pintatzen? Guk ez daukagu gure burua arriskuan, baina makina bat zabor kaleratzen da... Horrela bizi gara, gero eta gutxiago pagatu, kalitateak bost axola, eta ahal den gehiena lan egin. Iruditzen zitzaigun literatura edo itzulpena horretatik kanpo gelditzen zela, baina ez, ekonomiaren beste alor bat da, zoritxarrez.

Erika: Nik zuek baino eskarmentu gutxiago daukat. Nik uste aldaketa nabarmenena unibertsitatearen eskutik etorri dela. Lehen, denek elkar ezagutzen zenuten eta abar, baina orain, sekulako ikasle mordoa ari da ateratzen, horiek berriak dira, baina nik uste dut taldeka lan egitearena ez dela hainbeste aldatu. Ikasleek ere ikasketak amaitu eta sortzen dituzte taldetxoak, gerta-

tzen dena da igual ez dagoela belaunaldi ezberdinen arteko harreman hori. Irakasle garen aldetik saiatzen zara balore batzuk irakasten, eta esaten: “Saiatu zaitzte karreran bertan ikaskideekin harreman onak egiten, gero lanean enkarguak ondokoari pasatzeko, edo elkarri zuzenketak egiteko”. Nik ikusten dut halako balore batzuk mantentzen dituztela. Gertatzen dena da belaunaldien arteko harremana apurtu egin dela.

Aintzane: Bizi garen abiadura honetan, orubete hartzea asko iruditzen zaigu; orain dela gutxi, filologia ikasitako mutiko bat hasi zen gurekin lanean, eta gutxi gorabehera, egunean orubete edo egon behar zenuen berarekin, eta hartu dugu lan hori, baina egunerokotasunean, batzuetan, esaten duzu: “Uf, ezin dut. Aizu, begira, ezin dut, eta moldatu zaitetz”. Eta gurekin, gero pentsatzen duzu, Josu Zabaletak-eta entziklopedia zuzentzen zutenean, zenbat ordu emango zituzten gure deskuiduak zuzentzen, ezer esan gabe. Agian kontzientzia handiagoa zegoelako, eta guk ez daukagu kontzientzia hori.

Erika: Nik beste aldaketa bat ere nabarmenduko nuke, eta zuzenduiezaduzue oker banago. Elkarrekin beti borroka egin du tarifa duinak eta soldata duinen alde. Eta orain ikusten dut itzultzaile mordo bat atera delako kalera, tarifak ere botatzen hasi direla, soldatak ere jaitsi egin direla, eta lan baldintzak okertu egin direla hainbat kasutan.

Aintzane: Tarifak-eta jaisten dituztenak ez dira atera berriak, enpresak jarri dituzten eskarmentu handiko itzultzaileak dira. Besteak, ondorioak jasaten ari dira.

Lurdes: Alboan Piarres edukita, niri bururatzen zaidan lehenengo gauza, nik pixka bat bizi izan nuelako eta oraindik heltzen

diogan kontua delako. Itzultzaileak, lehen, beti izaten zuen sortzaile lana egiten zuenaren kontzientzia, testua birsortu egiten zuen. Itzuli bai, baina itzultzearekin batera, beste hizkuntzan sorkuntza lan handi bat egiten zen eta egiten da. Niri horrela erakutsi zidaten eskolan eta oraindik jarraitzen dut, behintzat, printzipio hori ez ahazten, nahiz eta, askotan, korrika eta presaka egin behar izaten ditugun zenbait itzulpen, eta, askotan, garrantzi handia daukatenak: gutun bat, gonbidapen bat, etab. Baina lan serioagoetan ari garenean, eta serioak diot, luzera aldetik edo, aipatu dudan helburu sortzaile hori, nolabait, uste dut galdu dela, erabat instrumentalizatu dugula gaur egun itzulpena, eta askotan pena ematen dit.

Senez: Galdera egin gabe ere erantzuten hasi zarete, baina, zer gerta ere, bota egingo dut itauna. Itzultzaileari, langile moduan, oro har, zer deritzozue? Itzultzailea tresna hutsa da ala idazle halako bat, jatorrizko testua berridatzi beharrean egoten den sortzailea?

Piarres: Nik erran dizuet, apez bezala ari nintzela lanean, eta beraz, lan hori, nolabait, sakratua zen, ez zen lan komuna. Baina horrek ez du erran nahi ez zuela batailarik sortzen. Ez dut sekulan ahantziko gu baino zaharragoekin ukan genuen bataila. Trentoko Kontzilioaren aurretik balira bezala, haientzat baziren hiru hizkuntza sakratu. Badakizue, Erdi Aroan horretan zeuden: hizkuntza sakratuak: latina, grekoa eta hebreera. Gero jin ziren protestanteak, eta protestanteen errana onartu zuen Erromako Eliza Katolikoak bost menderen buruan.

Hor, gu bidegurutze batean ginen, XX. mendean Eliza Katolikoak hartu dituelakoz, XVI. mendean baztertu zituen zenbait bide eta hor ikusi dugu gizon bat Euskal Herrian Manuel Lekuona, ez nuke hartaz gaizki mintzatu behar, izugarriko garrantzia izan baitu gutartean, eta anaia bat bazuen Martin Lekuonak, hura ere apaiza, faxistek fusilatua. Baina harekin izan nuen eztabaida gogorra. Baina Lekuona saria emango zidatela jakin nuelarik, ez nuen halere kontzientzia txarrarekin hartu eta ez bakarrik haren hiru iloba apaizekin Juan Mari, Andoni eta Julenekin lagun minak ginelako.

Egia da egun batez erran niola osaba zaharrari “Zu, Jauna, euskara batua egiten ari zara, alde batetik, mundu laikoarekin, hau da, Mitxelenarekin eta Euskaltzaindiarekin eta bestaldetik, zuhaur ikusten zaitut beste mundu batean sartua, nihaur bezala funtsean, eta hor egiten ari gara bigarren euskara batu bat: Elizaren euskara batua. Ez dut sekula ulertuko, jauna, nolaz, teologia garbi batek onar dezakeen dualismo edo bitasun hori nahiz badakidan zergatik egin duzun hori. Zure belaunaldiko lagun bat entzun duzulako, izutu zaituztelako zure belaunaldikoek izan da; Kaminazpi delako bat, ondarrutarra, izan da *Alderdin* argitaratu duena artikulu bat zure kontra”.

Ene kontzientziaren arabera, egin nuen ene oharra, ez baitzen ene ustez teologikoki justifikagarri jende berek bi euskara batu egitea. Geroztik badakigu guztiek nola bi itzulpenek Erromako Elizarenek eta Euskal Munduarenek baturantz egiten ari duten, azken buruan itzulpenek ere baitukete baikoitzak beren “tempoa”.

Euskarazko itzulpenen historia eginen delarik ez dira ahantzi beharko ez bakarrik

Euskaltzaindiaren eta Euskarazaintzaren gatazkak, ez eta ere Orixe eta Lafitte eta Zaitegi, eta Ibinagabeitia beste zenbatenak! Orduan ohartuko dira menturaz gure Erromako Elizaren Euskal Herrietako arduradunak, Larraona kardinalari eta Bugnini monsinoreak bultzaturik, gure *Pater* "Gure Aita" eta *Ave* "Agur Maria" batera erratera heldu baldin baginen, zorigaitzez *Credo*, *Sinesten dut* osatu gabe lotsatu eta desegin zela gure batzordea.

Ez da, ordea, Erromako Eliza Euskal Herrietako erakunde bakarra, itzulpen problemak izan dituen. 1978an Kanadatik itzuli nintzelarik eta Ibañetan ikusi nuelarrik-eta bilbotar jende apaindua, kantariak kantatzen ari, hor, halako txoke bat egin zitzaidan. Hau "bilbainoen" inbasioa duk! Nafarra banintz erran nezake ez dugula nehoiz bide horretatik gure Amalur Nafarroa askatuko, hots, hasierako EAJren bidetik.

Geroztik, ikusi dut Aingeru Irigarai askotan errana ziola hori bera Piarres Lafitteri Euskaltzaindiaren barne historian (2005eko *Euskeran*) ageri den bezala. Dena dela, orduan, Ibañetan, Baionako gazte batek eman zidan euskarazko *prospectusa*, eta nik galdatu: "Badakik euskara?". Hark: "Ez, ikasten ari". Gaur egun hura bera omen da gure etnografiaren espezialista, maskaradez eta euskal kulturaz egin du frantseseko liburua, euskararik egundaino ikasi gizon horrek. Alta, zenbat aldiz ez diot ikasle askori esan: "Ikas ezak/n lehenik euskara; frantsesez kanpo, ez duk/n nehongo ikerlerik ez amerikanorik menturatuko denik indioez mintzatzeraz, indioen hizkuntzak ikasi gabe, eta zuek euskotarrek, abertzaleek, baduzue kopeta euskaldunetz hitz egiteko euskararik ikasi gabe!".

Lurdes: Jende ausarta toki guztietan dago!

Piarres: A, bai? Hori ez nuen uste. . . Ene argudioa ari da, beraz, zahartzen, beti frantseseri erraten bainien "*Ça, c'est bien l'Université française napoléonienne. Mais chez les américains, je n'ai jamais trouvé un chercheur qui ose parler des indiens sans apprendre leurs langues*".

Lurdes: Bueno, zer den berridazle izatea? Nik uste dut denetik izan behar dugula itzultzaileok. Eta, hain zuzen, uste dut gure lanaren konplexutasun handienetako bat hortik datorrela. Alegia, lehenengo berezitu jatorrizko testua, itzuli behar den testua. Ondoren, horren erabilera zein izango den, hartzailea nor izango den, eta, horren arabera, nik uste dut momentu batean izan daitekeela erdi makina bat, eta, beste batzuetan, berridazle bat izan behar duela. Lehen aipatu duzu elizaren arazoa; hau da, elizari zer euskara erabili; nik gogoan dut Iratzeder; ezagutu nuenean, bere salmoak irakurtzen hasi, eta pentsatu nuen: "Uler-tzen dut! Abestu ditzaket!".

Alde horretatik, eta berridazle izan eta abar, gogoan dut baita Eugène Nida hemen izan genuenean, Bibliaren itzulpenaren inguruan hainbeste azterketa egin dituenak, berak esaten du, bere teoriarik, zer hizkuntzataraz itzultzen den, horrek ere garrantzi berezia duela; alegia, ez dela gauza bera hizkuntza batera edo bestera itzultzea, hizkuntzak eta hizkuntza horren kulturak, ohiturak eta abarrek asko baldintzatzen dutelako itzulpena. Askotan gertatzen zaigu, ordea, Euskal Herriari bizirik dauden idazleen testuak itzuli beharra; itzuli ondoren egileak hartzen du testua eta orduan hasten dira kontuak.

Niri tokatu zait Karlos del Olmorekin, Joseba Zulaikarekin eta beste zenbait idazle-ekin lan egitea; alegia, beraien testua hartu, itzuli —esan dudan bezala, sekulan ez dut entregatu itzulpen bat beste norbaitek gutxienez ikusi gabe, edo beste norbaitek zuzendu gabe—, eta pasatu egileari, eta egileak, gazteleraz kasu honetan, irakurri, eta esatea: “Zer arraroa, zer gordinal!”. Gero hasten dira zuzentzen, eta berridatzi egiten dute. Baina kasu horietan bai, berridatzi dezakete beraiek; alegia, bizirik dauden egileak dira.

Gauza bat da bizirik dauden egileena, eta beste bat da, nik uste dut, denoi gertatu zaigula bizirik ez dauden edo, bizirik egon arren, gure hizkuntza ezagutzen ez dutelako-edo, gure itzulpena baloratu ezin dutenen lanak itzultzen ditugunean, Ataunen esaten dugun bezala, askoz “kontu” handiagoarekin itzultzen ditugula, jakinik gero ezingo digula berak esan hau ongi dago edo ez; alderantzizko kasuan, askotan, esaten duzu “ez dakit justu hau esan nahiko ote duen”. Baina ez bada hori, gero egileak berak zuzenduko du. Uste dut arazo honi tiraka EIZIEn bertan eztabaida dezente izan direla, jardunaldiak eta guzti egin ditugu egile eta “autoitzultzaileena” aztertzeke, nork bere burua itzultzea: gauza asko eta asko esan daitezke.

Aintzane: Nik ez dut garbi ikusten. Batzuetan, iruditzen zait makina bat naizela; hasten zara, baina jatorrizkoa nola dagoen konturatu ere egin gabe, testua ondo badin badago, arin joaten bada, eta zuk ulertzen baduzu, primeran, esaten duzu “itzulpena egin dut”. Beste batzuetan, ez duzu tutik ententitzen, eta hor hasten zara, jira eta buelta, hau esan nahiko du... hor lana sor-

tzen da, zeren, ezin duzu bestela itzuli; interpretatu egin behar duzu, euskararen beste bideetara jo, adibide kulturalak esan dituzunean sartu behar dituzu aipamen batzuk, nahi eta nahi ez. Nik esango nuke lanaren arabera dela ere: zer itzulpen, zer testu. . . literaturan ere gertatzen da: zer garaikoa, zer kulturatakoa den. . . Orain dela gutxi itzuli dugu Groucho Marxen autobiografia, eta aipamen kulturalak milaka daude, guk gaur egun ezagutzen ez ditugunak: zinemakoak, telebistakoak... Eta zer egin behar duzu? Batzuetan, badago hemen ordainik, baina beste batzuetan ez; hor sortzen da: zenbateraino sartu dezakezu, zenbateraino ez... Baina ez dut uste hori argi dagoenik. Teoriak milaka daude, eta norberak egiten du unean uneko irtenbidea bilatu; ezin zara egon astetan eta astetan pentsatzen “sartuko dut aipamen hori, ez dut sartuko?”.

Testu motaren arabera ere bada alderik. Dibulgaziozko testu batean gehiago jartzen duzu zure altxorretik. Lan literario baten aurrean nagoenean iruditzen zait lizentzia gutxiago hartu behar ditudala eta testuari eutsi behar diodala. Eta testuliburu bat, geografiakoa, eta, jakinda irakaskuntzaren maila, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, bai hizkuntza guztietan, nik uste dut gehiago sartu behar duzula eskua, eta ahalegindu jakiten zeinentzako den lan hori eta zertarako den: erakusteko dela, alegia. Beraz, egilearen bixikeriak pixka bat utzi eta eusten diozu lanaren helburuari, erakusteari, adibidez, kasu horretan. Horri heltzen diozu gehiago: norentzako den.

Senez: Zer itzulgai duzue esku artean orain?

Piarres: Esku artean nik ezer ere ez memento honetan.

Lurdes: Piarres, momenturen batean zer egin jakin gabe baldin bazaude, eskatzen dizut lan bat egiteko, eta gainera ez da inolaz ere txikia: euskal itzulpenaren historia idaztea. Euskal itzulpenaren historiaren protagonista izan zareten batzuk oraindik gure artean zaudete. Badakigu inor ez garela hemen betiko; badakit, ez da zuen zeregina, edo ez behintzat zuena bakarrik, baina Unibertsitatetik adibidez momentuz behintzat ez dut ikusten era horretako ikerketa sakonak egiteko kemenik, ez dakit. Euskaltzaindian, esate baterako, itzulpenaz hitz egiten den. Urte asko daramatzat proiektu hori faltan botatzen: Martuteneko Itzultzaile Eskolan ekin genion proiektuari, EIZIEn lan handia egin zen, baina ez dago inor behar bezalako azpiegiturarekin eginda dagoena bildu eta falta dena osatzeko lanei ekin diezaiokeenik.

Piarres: Ez. Bestalde, esanen dizut, gai bat berehala etortzen zaidala gogora, zuk aipatu orduko. Behar liteke ikertu Xurioren itzulpena nork egina duen: ala anaiak ala arrebak. Zeren Xuriotarren *Jesukristoren imitazioa* klasikoari dagokionez, Xurio familia handia zen: Osaba jesuita ospetsua Bordelen, gero, hiru iloba apez nagusi izanak; Baionako katedralean bi eta bat Donibane Lohizunen. Eta susmoa dabil, liburua-aren azken zatia, arrebak berak itzulua duela, honek baitzuen liburu osoa argitaratu anai gazteena hil ondoan. Eta horrek interesatzen nau jakiteko, zer izan den emazteen lekua gure literaturan. Beste liburu bat bai-

taukat nihaurek argitaratua, eskuizkributan bakarrik geneukalarik, *Zerura heltzeko meditazioen* liburua, Frantziako Iraultza aitzin, Daguerre Larresoroko seminarioaren sortzaileak, Urruñako andere Etcheverryrekin eraiki zuen Hazparneko komentu zaharrean, Jeanne Marie Robin delako batek baliatu zuena.

Robin izen hori, hain zuzen, agertzen da, bestalde, Donibaneko bi osaba-iloba apaiz baititugu gure Literaturaren historian XVIII. mendean, bai itzulpengintzan Harnederren eskuizkribuarekin bai bertsolaritza, “euskara bastarta”ren kontrako bertsoekin. Ikusten duzue ikerlan izugarria balitekeela egiteko!

Lurdes: Oso gauza bitxia da, garai batean, eta oso urte gutxira arte gainera, euskaltzaleak izan dira era honetako gaiak aztertu dituztenak. Orain, esate baterako, euskal filologia ikasten duen jendearen artetik, edo euskal filologia irakasten duten irakasleen artetik, ez dago itzulpengintzaren azterketa-ri buruzko kezkarik. Badirudi dena orain itzulpenaren bizkar utzi asmo dela, baina gero, bestetik bitxia da, baita ere, Labayru, Sarasola, Euskaltzaindia. . . . Badauzkagu zenbait erakunde, zenbait pertsona, egiten duten lanaren bidez gure lana etengabe baldintzatzen digutenak, eta itzultzaileok ere ez dugu ezer esaten hor.

Aintzane: Ibonen azken hiztegian aipatzen du itzulpen lana, eta buruan baduela jende hori. Aipatu du prentsaurrekoren batean edo, eta baita hitzaurrean ere.

Piarres: Baina badakizue ere Ibon eta beste euskaltzain zenbait ez dela gehiago etortzen Euskaltzaindira, gure Euskaltzaindi “gris” horretara. Ez dute arauz aski interesik etortzeko. Ez dakit, Atxaga hor baldin

badugu, baina, etorriko ote da? Atzo, haste-ko, ez genuen ez Atxagarik, ez euskaltzain berririk. Hura Bruselan zen. Bera izendatu dugu Bruselan zelarik. Ez dakit gehiago non gabiltzan. Nire beldurra da Euskaltzaindia bilakatuko dela gure burokrazia nagusia. Eta, instantean, onomastika jolasaz besterik ez dugu eginen, onomastika eta toponimia, besterik ez. Horren beldurra dut. Hori ikusiko duzue beharbada zuek gazteek. Baditugu hogeita hamar, berrogei liburu bederen, toponimiaz argitaraturik baina ez da dirurik Villasantek hasia zuen Euskaren Lekukoan zerrendari jarraikitzeke.

Atzo, haatik, entzun dut: “A, bai, hori behar dugu berriz aipatu!”

Hona, bada, zer nion aitzinean errana gure buruzagi bati: “Aizu, Lafittek publikatu zuen Salvat Monho. Hil zen Lafitte, baina orain baditugu eskutan haren paperak, Andiazabalen gelan direnak. Lafittek publikatu zituenak, itzulpen frantsesarekin, baina konturatzen zara Lafitte zahartua zela, gaixoa, hori atera zuelarik, eta badirela hutsak aski larriak. Bestalde, bazen orrialde bat, osoa, berex idatzia, eta han dira Monhoren bertso politenak, interesgarrienak historikoki, Bonaparte joaten delarik hemendik, botatzen baitizkio sekulakoak Napoleon hastialari eta haren jarraitzaile izan ziren hiru irisartar bakarrei. Salvat Monhoren edizio berri bat egitea, zuzenketak eginenez, merezi luke, baina nork eginen du? Bada nehor?”

Lurdes: Esku artean zer daukagun? Nik gaur egun itzulpen lanak egiten ditudanean, egia esan, bakarrik haur eta gazte literatura itzultzen dut. Uste dut adinak abantaila hori ematen digula; alegia, adinak, eta beste lan batzuk edukitzeak ere, aukeratu ahal

izatea zer itzuli eta zer ez. Baditut, momentu honetan dozena erdi bat ipuin, normalean argitaratzen dizkidan argitaletxearen enkarguz, eta beste argitaletxe berri batekin ere lanean hastera noa; eta interpretazioan, tokatzen dena, urte sasoiaren arabera, saio desberdinak.

Aintzane: Ez dut orain ezer berezirik. Azkena, literaturakoa, Groucho Marxena izan da, eta orain dela gutxi bukatu dugu, beraz, orain, atsedenaldia, eta eguneroko bestelako itzulpen aspergarriak.

Erika: Nik, oraintxe, interpretazio teknika eta modalitateei buruzko hamabi bat iruzkin zuzentzeko, eta motxila handi bat, asteazkenean Atenasera joateko, Foro Sozialera, interprete bezala. Eta Valladolideko unibertsitatean badago ikerketa talde bat Afrikako literaturaren itzulpenaz eta errezezioaz arduratzen dena. Proiektu horren baitan hainbat obra itzultzen ari gara eta oraintxe ipuin pare bat itzultzen ari naiz euskarara.

Senez: *Berriro bizitzen hastekotan, ostera ere itzultzaile izango zinatekete?*

Piarres: Nik nahi nuke zerbait egin, gustua hartu dut. Ene azken itzulpena bederen, amorez egina dut, hots *Klasikoak* sailean, Martintxo Azpilkueta doktore nafarraren antologia: nihaurek hautatuz teologia eta politika testu zorrotzenak.

Lurdes: Nik ere bai, dudarik gabe. Adibidez haur eta gazte literaturaren itzulpenak satisfazio handiak ematen dizkit; bestela, formazio aldetik, beti gogoia izan dut zoologia edo horrelako zerbait ikasteko, eta agian espezializatuko nintzen era horretako testuen itzulpenean. Nork daki?

Aintzane: Nik zalantzarik gabe. Gainera, askotan aipatu izan dugu: orain utzi beharko banu itzultzaile izateari, zer egingo nuke? Eta ezin asmatu: josten hasi edo horrelako zerbait. Agian, formazioaren alde-tik, nik nire buruarekiko ikusten dudan hutsune nagusia hizkuntza gehiago ikastea da. Gainera, eguneroko lanean, gero eta denbora gutxiago daukazu zure beste hizkuntzetan irakurtzeko eta gehiago lantzeko. Baina, bestela, zalantzarik gabe.

Erika: Nik baita. Urte gutxi daramat saltsa honetan, baina bai; gustura, gainera. Eta, gero, Lurdesek esan duena: askotan zure buruari galdetzen diozu: “Bestela zer izango nintzateke?”, sendagile, edo erizain edo horrelako zer edo zer. Baina bai; bestela, galdetuko balidate benetan zer, gustura izango nintzateke berriro itzultzaile edo interprete.

Lurdes: Gauzatxo bat: hizkuntzena. Uste dut, dudarik gabe, aurrera egiten ari garela alor horretan. Hemen, batzuk badauzkagu gure morrontzak, Piarresen esaten zuen bezala, ingelesa eta alemana, baina niri buruhauste gehiegirik ere ez dit ematen. Lanean... gustatuko litzaidake ahalik eta hizkuntza gehien jakitea. Baina ezagutzen dut jendea oso obsesionatuta bizi dena, hizkuntzak ikastearen egarri horrekin, eta bat ondo ikasi gabe, hiru kaka nahasten dituztenak.

Aintzane: Nik hizkuntzena, agian, gehiago ikusten dut alderdi pertsonaletik; aukera ematen dizulako bidaiatzen duzuenan jendea zuzenagotik ezagutzeko, zuzenean irakurtzeko. . . Eta niri unibertsitatean atentzioa gehien eman zidana hizkuntzena: jakin behar duzula ingelesa, frantsesa, alemana eta abar. Eta ni iritsi nintzenean esan nuen “Nik ezin dut hemen egon, he-

men erakusten denik ez dakit”. Agian erdibide bat ere. . .

Erika: Ni ere berriro itzultzaile izateko-tan bai, baina beste hizkuntza konbinazio batzuekin. Gaur egun uste dut merkatua dezente aldatzen ari dela, eta, ez dakit arabiera, edo txinera, edo hindia, horrelako zerbait ikasiko banu. . .

Senez: Itzultzaileen elkarte oraindik beharrezko?

Lurdes: Nik uste dut elkarteak beharrezkoak direla, dudarik gabe. Nik, zer esango dut, bada, EIZIE kume bat dudala kontuan izanda?! Baina jarraitzen dut elkarte sortu genuenean pentsatzen nuen gauza bera pentsatzen. Elkartasunak dakar indarra, baina indarra esanda ez dut adierazi nahi bakarrik errebindikazio edo eskari mailan, baizik indarra, baita ere, norberak txoko bat bilatzeko, bere zalantzak kontsultatzeko, lankideak bilatzeko eta abarretarako. Orduan, alde horretatik, nik uste dut badaukagula zerbait egiteko, eta gutxitan hitz egiten dugu horretaz, baina zera da: Euskal Herrian, ez gaude bakarrik euskararako itzultzaileak. Beste hizkuntza askotarako itzultzaileak ere badaude, gaztelaniara, frantsesera, ingelesera edo atzerriko hizkuntzetara itzultzen duten itzultzaileak. Orduan, “Euskal Itzultzaileen Elkarte” agian “Euskal Herriko Itzultzaileen Elkarte” noizbait bihurtzearen kontua. Nik uste dut, gainera, orain fakultatea edukita, bitxia da, baina euskara ama hizkuntza bezala aukeratzen duten ikasleen kopurua gero eta txikiagoa da. Horrek ere zer pentsaturik ematen digu, gure Euskal Herri honetan euskararen ezagutza gero eta handiagoa den neurrian, euskararen erabilera gero eta

txikiagoa izatea. Horregatik, besterik ezean, uste dut noizbait planteatu beharko genukeela Elkartearen berregokitzapen hori. Egia da ate joka jenderik ez datorrela, edo ez behintzat zuzenean. Galdetzen digutela-ko, noizean behin, kanpotik, “Zergatik bakarrik euskal itzultzaileen elkarte?”. Noski, helburuak asko aldatuko lirateke, baina ez dut uste euskal itzultzaileak gaudenik elkar-tea sortu genuenean bezala, inondik ere ez.

Aintzane: Nik batez ere jakin nahi nuke ea unibertsitatean-eta jendeak elkarte beharrezkotzat ikusten duen, itzultzaile aritze-ko pentsatzen duten: “elkartera joan behar dut.”

Lurdes: Ez. Unibertsitatean aipatzen da kolegio profesionala. Eta Eusko Jaurlaritzak jarraitzen du kolegio profesionalak sortzen. Eusko Jaurlaritzak badu ahalmen hori, betiere kolegio profesional horien jarduera eremua Autonomia Erkidegoa delarik. Badakigu zenbateko garrak atera dituen ezta-baida honek zenbait tokitan, baina, uste dut, gehienetan, oso modu arrazoitu gabean izan dela. Hor betiko beldurra izaten da, titulazio egokirik ez duen profesionala kanpoan geratu behar den ala ez. Titulurik eduki ez eta esperientzia duten profesionalak kolegioan sartzeko bideak asko egon daitezke, eta erabili izan dira beste hainbat kolegiotan. Hori ez da arazoa, kontatzen duena itzultzaileon interesa da lehenik, eta ondoren gure indarra: ez daukagu indarririk era horretako proiektu bat abian jartzeko.

Erika: Niretzat, elkarte, pertsonalki, adibidez, niretzat oso garrantzitsua izan zen, zeren, hasten zarenenean, galduta zaude; ez dakizu nola hasi, nola ekin lanari, eta gogoratzen naiz hasi nintzenean nik uste bulegariak mareatu egiten nituela: “Eta hau faktu-

ratzeko, nola? Ez naiz autonomoa, eta. . .”, horrelako aholkularitza eskertzen da, batik bat, hasten zarenean. Unibertsitatean irakasten dizute nola itzuli, baina ogibidearen alde praktikoak ez dituzu ezagutzen lanean jartzen zaren arte; eta, alde horretatik, niretzako, elkarteko bazkide izatea oso positibo izan zen.

Aintzane: Niretzat, hasi ginenean, erreferentzia bat zen elkarte. Agian, garai batean, kezka gutxiago genituen fakturak eta horrelakoak egiteko, eta beste kezka batzuk genituen kalitatea-kalitaterik eza, agian ikasketak ez zeuden araututa, beraz ikasteko beste modu bat zen, itzulpenari zehazki bideratutako ikastaro gehiago egiten ziren, eta nik lotzen dut ere formazioarekin edo lanbidearen ez bakarrik alderdi administratiboarekin. Horietatik ere jakin behar da gaur egun, itzultzaile batek jakin behar ditu gauza horiek. Nik gogoratzen dut elkartean hasi ginenean —aldi berean hasi ginen itzultzen eta elkartean—, guretzat Martuteneko eskolaren jarraipena bezala zela, bai ikasketaren aldetik bai esperientziaren aldetik.

Erika: Noski, nik ere ez dut alderdi administratiboa bakarrik azpimarratu nahi. Nire aldetik, kanpoan ikasi nuen, Sorian, gaztelaniaz. Orduan, EIZIE euskal itzulpengintzaren munduan sartzeko modua izan zen, zuek denak ezagutzeko, eta jakiteko hemen gauzak nola egiten zenituzten.

Lurdes: Formazioarena aipatu duzula, nik uste dut jarraitu beharko lukeela EIZIEk formazioa ematen. Hasteko, badagoe-lako jendea, elkartean, eska dezakeena edo behar hori eduki dezakeena. Eta bigarrenik, unibertsitateak ez duelako formazioa ematen gauza guztietan, ezta gutxiagorik ere.

Eta ematen duen formazioa oso orokorra da. Ezin da zehaztasunetara joan, ezin da ezer espezializatua egin. Normala da. Orduan, dudarik gabe, elkarteak behintzat jarraitu beharko luke.

Aintzane: Iruditzen zait garai batean gehiago jotzen zela zuzeneko horretara, eta orain, agian, unibertsitatearen esku utzi dela; eta agian ez du zertan bere esku egon behar, ez da, beharbada, haren zeregina era horretako formazioa ematea.

Lurdes: Unibertsitateak bai eman dezake, baita ere, baina unibertsitateak beti ematen ditu ikasketa arautuak. Orduan, ikasketa arautuetatik kanpo geratzen den guztia, hutsune hori, nork bete behar du? Edo... nork bete dezake?

Senex: *Unibertsitateko formazioa bat da, eta beste bat da birziklatzea. Eta formazioari dagokionez, harreman estuagoa izan beharko luke elkarteak unibertsitatearekin, bazkideen eta, oro har, itzultzaileen beharrak detektatzeko.*

Lurdes: Dena dela, gogoan izan itzultzaileen elkarteko bazkideek askoz lehenago detektatzen dituztela arazoak eta bilatzen konponketak, unibertsitateak horretarako

bideak jarri baino lehen; alegia, unibertsitatearen zain geratzen baldin bagara, pentsa itzulpen memorien gaian. Itzulpen memorien gaiarekin zer egiten du unibertsitateak? Berrogeita hamar ordu eman hogeita hamarreko taldetan, baina elkartean, talde txikiagoetan gai hori lantzen zenbat urte daramatzagu?

Aintzane: Gogoan daukat Zuzenketa-aren Jardunaldietan zenbat jende zegoen, izugarria izan zen. Hor ikusten da beharra dagoela, eta ez bakarrik zuzenketa. Orduan zuzenketa tokatu zen, eta egia da lan handiagoa egiten dela zuzenketa-aren alorrean. Baina, bestela ere, jendeak behar handiak dauzka, maila guztietan.

Lurdes: Eta unibertsitatean ez da zuzenketa irakasten. Ez da aipatu ere egiten.

Aintzane: Hor ikusten da bi mundutan gaudela.

Piarres: Halere, gaur ikusten dut hemen ez duzuela Euskaltzaindian dugun problema bat, zorionez. Hemen emakumeak badaude. Eta zeren zain zaudete Euskaltzaindian sartzeko?

Lurdes: Antza, Euskaltzaindikoko gizonak ez gaituzte nahi!

Piarres: Ah, hori da beraz ez nekien; gure bekatua hor da.

Lau belaunaldi euskal itzulpengintzaren inguruan

Itzulpengintza oso lanbide zaharra omen da, nahiz eta haren gaineko teorizazio sendoa XX. mendearen era sistematikoan lantzen hasi zen. Orokorrean, beraz, ofizioaren gaineko teorizazioa “labetik harako ogia” da, eta, zertan esanik ez, euskal itzulpengintzaren gaineko gogamenaren baranoan, lehen pausuak baino ez ditugu eman. XXI. mendea urteak betetzen hasita dagoela, nekez topa liteke mahai ingurura gaur egun euskal itzulpengintzan diharduten hainbat adinetako itzultzaileak elkartzeko garai egokiagorik, nork bere ikuspegia azaldu, lanbidean ibilitako kamioaz berba egin, itzulpengintzaren zokondez eta, oro har, ofizioaren penez eta pozez aritzekorik. Hala, **Lurdes Auzmendi, Aintzane Atela, Erika Gonzalez eta Piarres Xarriton** bi mila eta seiko maiatzeko arratsalde batean, elkarrekin bazkaldutakoan, EIZIEren egoitzan elkartu dira Senez aldizkariaren zuzendariarekin zenbait sujeten gainean solas patxadazkoa egitera.

Quatre générations autour de la traduction basque

On prétend que la traduction est une activité très ancienne, bien que le travail de théorisation systématique n'ait débuté qu'au XX^e siècle. Globalement donc, la théorisation de la profession est récente et, il faut avouer que nous n'en sommes qu'aux premiers pas dans le domaine de l'appréhension de la traduction basque. Alors que le XXI^e siècle est bien entamé, il serait difficile de trouver période plus adéquate pour réunir autour d'une table plusieurs traducteurs d'un certain âge travaillant actuellement dans le domaine de la traduction, afin que chacun expose son point de vue, parle de son parcours professionnel, s'exprime sur les tenants et les aboutissants de la traduction et, en général, sur les peines et les joies de cette profession. Ainsi, **Lurdes Auzmendi, Aintzane Atela, Erika Gonzalez et Piarres Xarriton** se sont retrouvés au siège d'EIZIE, un après-midi de mai 2006, après avoir déjeuné ensemble, afin de discuter tranquillement d'un certain nombre de sujets en compagnie du directeur de la revue Senez.

Cuatro generaciones en torno a la traducción del/al euskera

La traducción, como profesión, tiene una larga historia, aunque es cosa sabida que solamente se ha comenzado a teorizar seriamente sobre ella, a nivel universitario y científico, a partir del siglo XX. Por lo que se refiere a la traducción desde y hacia el euskera, ese nivel básico de reflexión e investigación científicas está comenzando a construir sus primeras estructuras con cierto retraso respecto a otras lenguas de más difusión y que no sufren, por otro lado, la situación sociopolítica que tiene todavía que vivir el euskera. Por ello, la dirección de la revista Senez convocó en mayo de dos mil seis en torno a una mesa redonda a **Lurdes Auzmendi, Aintzane Atela, Erika Gonzalez y Piarres Xarriton** para que cuatro generaciones de la traducción vasca reflexionaran desde el siglo XXI sobre el pasado, el repente y el posible futuro de la traducción vasca.

Four generations dealing with translation from/into Basque language

Translation, as a profession, has a long history, although it's a known fact that serious theorizing about it, at university and scientific level, only began in the 20th century. As far as translation from and to Euskara is concerned, that basic level of scientific thinking and researching is beginning to build its first structures with something of a time-lag compared with other languages which are more widespread and which, moreover, aren't beset by the socio-political situation which Euskara still has to live with. With this in mind, in May 2006 the managing editors of Senez Magazine hosted a Round Table to which they invited **Lurdes Auzmendi, Aintzane Atela, Erika Gonzalez and Piarres Xarriton** so that four generations of Basque translation could pool their thoughts from a 21st-century perspective about the past, the now and the possible future of Basque translation.

